

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bilboko Udal Etxebizitzak TEA****2021eko EPEko Komunitateen Administariaren 4 lanpostu ezohiko egonkortze sistemaren bidez (Lehiaketa) betetzeko hautaketa-prozesuaren ebazpena.**

Bilboko Udal Etxebizitzak TEAren presidentek, Bilboko Udal Etxebizitzak TEAn langile lan-kontratudun finkoen lanpostuak betetzeko ezohiko egonkortze-prozesuak arautuko dituzten Oinarri Orokorren hamahirugarren oinarriekin bat (2022ko azaroaren 8ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 212. zenbaki) emandako ahalmenak baliatuta, honako hau xedatzen du 2023ko uztailaren 28ko Ebazpenaren bidez:

*Lehenengoa:* María Idoia Yurrebaso Goiri andrea eta Marta Ruiz Pérez andrea proposatzea 2021eko EPEko komunitateen administariaren bi lanpostu, 2. HE nahitaezkoa dutenak, betetzeko eta Miguel Angel Ruiz García jauna eta Esperanza San Juan Cantera Andrea proposatzea 2021eko EPEko komunitateen administariaren bi lanpostu, 2. HE nahitaezkoa ez dutenak, betetzeko.

*Bigarrena:* Yurrebaso andreari, Ruiz andreari, Ruiz jaunari eta San Juan andreari ebazpen honen berri ematea, 2023ko irailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

*Hirugarrena:* Ebazpen honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, erakundearen iragarki-taulan eta webgunean (OPEm aplikazioa) argitaratzea.

Bilbon, 2023ko uztailaren 28an. — Zuzendariorde Operatibo eta Juridikoa, José María Escolástico Sánchez